


**ACUERDO NACIONAL SOBRE EMPLEO
PAKTU ETA KONTSUNTURIK EZ !!!**



BAJAN LOS PANTALONES SUBE LA BOLSA.

CEOE, Gobernua eta traje eta gorbatadun langileen aipatzen izenpeturiko akordioa guretzat, langioleontzat, izugarritzko tranpa bat da. Bertan erortzen bagara irtetzea zaila izango zaigu. Horregatik, tranpa hurretan ezin gintezke erori.

Hara zer irentsarazi nahi diguten:

— Lanean ari direnak, orain arte galdukoaz gain, %5 gehiago galduko dute beren erosteko ahalmenean. Gainera, produktibitatea jasotzeko lan erritmoa gehitu beharko da.

— Langabeak langabe jarraitu beharko dute. Aipatzen ditezten 350.000 lanpostu horik nola sortuko diren ez dute azaldu; ez baidakite, ezin dute eta ez baitute nahi. Beldurra eta segurtasunik eza hezurretaraino sartzeko ebentualitatea bultzatuko dute.

— Lan sindikala ezeztatu. Komiteek, Asanbladek eta sekzio sindikalek ez baitute ezer negoziatu behar. Langileok burukatu eta organizatu beharrik ez dugu, 1982.eraiko dena paktaturik dago eta.

— Desmobilizatu. Segurteasunik eza eta beldurra sartu eta ezer egiterik ez dagoela sinestarazi nahi digute. Haiek agindu eta erabaki eta guk haien ez esana bete. Frankismoaren aldirik beltzenetan ere ez zen horrelakorik gertatzen.

— Xibizkeria honi beren onspena ematearen truke, Marcelino eta Nicolasi 2.400 miloi eman dizkie. Dirutza hori gu guztiona da; geurea dugu. Diru mordo horrekin hainbat lanpostu sor ditezke. Lapurretan egin digute eta gainera irain egin diete miloika langileri eta langabe dauden 2.000.000ei.

Akordio hauek duten garrantziak jabetu beharra dugu. Gure etsaiek burua makurrarazi nahi digute. Hortan saiatuko dira.

Guk eraso hori deuseztatzeko ahalmena badugula ohartu beharra dugu, gu asko baigara; eta heurak, indartsuak izan arren, gutxi baitira.

Paktu sozial honen kontra erakuntza, eusteko gogoia eta burruka dagoen toki orotan, han izango da LAB ere.

PAKTU ETA KONTSUNTSURIK EZ



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 10160.

